

## Xedapen Orokorrak

JUSTIZIA ETA  
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2288

73/2011 DEKRETUA, apirilaren 12koa, zeinen bidez aldatzen baita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman behar dien ondare-erantzukizuneko gaitako gutxieneko zenbatekoa.

Azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.k) artikuluan arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsultatu behar zaizkio bere jarduera-eremuan dauden administrazioen ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioak, erreklamaturako zenbatekoa 6.000 euro edo hortik gorakoa denean. Lege-testu beraren lehen xedapen gehigarriak, bestalde, ahalmena ematen dio Eusko Jaurlaritzari, gure autonomia-erkidegoko administrazioen organo aholku-emaile gorenari aurkezten zaion kontsulta-kopurua aintzat hartu, eta ondare-erantzukizuneko auzi edo gai horietako gutxieneko zenbatekoa eguneratzeko.

Bada, urtero-urtero haziz doa, modu esponen-tzalean, ondare-erantzukizun eskarien kopurua, eta Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman behar dien gaien % 60 egiten du. Espediente-kopuru handi hori gehiegizko lan-zama da kontsulta-organoa osatzen duten bokal-kopururako eta administrazio-laguntzaren organorako, eta, jakina, halako moteltze bat ekarri du irizpenak ematerakoan, eta zuzendu egin behar da hori, egindako kontsultei arrazoizko epean erantzun, eta irizpenen kalitate juridikoa sendotu ahal izateko.

Horiek horrela, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari aurkezten zaion kontsulta-kopuru handia ikusita, egoki iritzi diogu kontsulta-organo horrek irizpena eman behar dien ondare-erantzukizuneko auzien gutxieneko kopurua eguneratu, eta 18.000 euroan jartzeari.

Ondorioz, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko apirilaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2288

DECRETO 73/2011, de 12 de abril, de modificación del límite mínimo de cuantía en los asuntos sobre responsabilidad patrimonial que deban ser dictaminados por la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

El artículo 3.1.k) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, establece que la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi debe ser consultada en los asuntos concernientes a reclamaciones sobre responsabilidad patrimonial de las Administraciones incluidas en el ámbito de actuación de la misma, cuando la cantidad reclamada sea igual o superior a 6.000 euros. Por otra parte, la disposición adicional primera del mismo texto legal faculta al Gobierno Vasco, en atención a las consultas que se sometan al conocimiento del órgano superior consultivo de las administraciones de nuestra Comunidad Autónoma, para que actualice el límite mínimo de cuantía en estos asuntos.

El número de solicitudes de responsabilidad patrimonial viene incrementándose anualmente de forma exponencial y suponen cerca del 60% del total de asuntos sobre los que la Comisión Jurídica Asesora está llamada pronunciarse. Este elevado volumen de expedientes supone una carga de trabajo excesiva para el número de vocales que integran el órgano consultivo y su unidad de apoyo administrativo, lo que ha contribuido decisivamente a provocar un ralentizamiento en la emisión de dictámenes, aspecto que es necesario corregir tanto para conseguir el reto de una respuesta a las consultas planteadas en un tiempo razonable, como para reforzar la calidad jurídica de aquellos.

Por lo expuesto y en atención al volumen de las consultas que se someten al conocimiento de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, se considera adecuado actualizar el límite mínimo de cuantía en los asuntos sobre responsabilidad patrimonial que deban ser dictaminados por dicho órgano consultivo a 18.000 euros.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Justicia y Administración Pública, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa la correspondiente deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 12 de abril de 2011,

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Eguneratu egin da, eta 18.000 euroan jarri, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman behar dien ondare-erantzukizuneko auzietako gutxieneko zenbatekoa, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak 3.1.k) artikuluan dakarrena.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Artikulu bakarrean adierazitako zenbatekoa baino txikiagoa duen ondare-erantzukizuneko espedienterik edukiz gero egun Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak izapidetze-bidean, hark berak emango dio irizpena.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 12an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

DISPONGO:

**Artículo único.**— Se actualiza el límite mínimo de cuantía en los asuntos sobre responsabilidad patrimonial que deban ser dictaminados por la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi a que se refiere el artículo 3.1.k) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a la cifra de 18.000 euros.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los expedientes de responsabilidad patrimonial de cuantía inferior a la señalada en el artículo único que se encuentren actualmente en tramitación en la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi serán dictaminados por ésta.

DISPOSICIÓN FINAL

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de abril de 2011.

El Lehendakari,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,  
IDOIA MENDIA CUEVA.